

ANTZERKIA > EMANALDIA

Banarte antzerki taldeak ekoiztutako kabaret satirikoa

Apirilaren 5ean eta 6an Bilboko Campos Eliseos antzokian estreinaldia egin aurretik, Errota kultur etxean erakutsiko dute lana, martxoaren 27an

Bilboko Campos Eliseos antzoki berriaren, apirilaren 5ean eta 6an, estreinatuko dute Banartekoek euren lan berria: *Vuelve, bigotillo, vuelve*. Bilboko hitzorduaurren aurretik, baina, euren herrian, Abadiñoko Errota kultur etxean egingo dute aurrestreinaldia. Martxoaren 27an izango da Banarte talde abadiñarrak ekoiztu eta Gabriel Itzig getxoiztarrek zuzenduriko lanaren lehenengo oholzaratzea.

Kabaret satiriko moduan pentsatutako lana da 2007ko abenduan sortutako Banarte antzerki

Kabaret satirikoa da Banarteren 'Vuelve, bigotillo, vuelve'

Kritika egiten diote boterea norbere interesen arabera baliatzeari

taldearen azkena: gizarte gaietara eta botereari buruzko ikuspegi kritikoak oholizatzen duena. Gizarte egoerari eta egoera politikoari buruzko erreferentziak, antzerkiaren eta kantuaren bitartez lantzen dituzte, eta umorea da obraren ezaugarri nagusia; ironia, gehien erabilitako baliabidea.

Boterea norbere interesen arabera erabiltzeari buruzko kritika da David Barbero kazetari eta antzerkigileak idatzitako gidoiaren antzezlanekoa, eta zuzeneko musika ere bada antzezlanaren ezaugarri azpimarragarria. ■ I.E.



GEURE DURANGALDEA



Arantza Arrazola San Agustineko programatzailea

Euskal teatroa

Oier Guillenek duela gutxi Berria egunkarian idazten zuenez, "Atzo, aspaldiko partez euskal teatroa ikusi nuen. Joseba Sarrionandiaren olerkiak ditu Manex Fuchsek Aulki hutsa" jostoka. Estetika, energia eta zenbait sorpresa atseginetan *Lipasen* eskua sumatzen zen. Atzo, aspaldiko partez, euskal teatroa ikusi nuelakoan nago. Zergatik? Aspaldiko partez, euskaraz sortutako antzezlan bat ikusi dudalako; erderatik itzuli gabekoa, alegia. *Tontotzat hartzen ez nauen antzezlan bat. Eskeraratze zuzua, bainu zehetasun bakoitzean zaindua*. Irakurketa honek neure burua itaundu du: zer da euskal teatroa?

Nahikoa litzateke esatea saioa euskaraz bada, eta antzezleak ere bai, "euskal teatroa" dela, testua jatorriz beste hizkuntza batean sortua izan arren. Nere ustez, hori euskaraz egindako antzerkia da, ez euskal antzerkia.

Zer ote da biak bereizten dituzena? Sena delakoan nago, bereizte gaituen idiosinkrasia transmititzen duena; horretarako, euskaraz bururatua, idatzia eta antzeztua izan behar du.

Definizio kontua baino emozio kontua dela esango nuke, asko dira "euskal teatroa" esatean otutakoak: *Babiloniako loreak* (Tirena (iruditzen zait Madrilen ez zutela uertzen jakin), *Aitarenekin bidaiari* HIKArena, *Euskarazetamoi* BIKOrena odo Gorrin-goren Xabiniator.

Oierrekin bat nator esaten duenean "Euskal teatroa zer den ez dakit, ez zer izan daitekeen ere. Nik zer nahi nukeen izatea dakit soilik".

Beste kontu bat da euskal teatroaren ikusle kopuruarena... hurrengo baterako utziko dut. Abaztu barik: *Aulki Hutsa* San Agustinen emango dute martxoaren 26an.

POESIA > ERREZITALDIA

Martxoaren 21ean izan zen Poesiaren Nazioarteko Eguna, eta zazpiegun geroagorako antolatuta dute aurten Abadiñon urteroko hitzordua duten poesia errezitaldia. Izan ere, dagoeneko 16 urte bada Vicente Moreno poeta abadiñarrak poesia errezitaldia antolatzen duela nazioarteko egun horren harira. Durangaldeko poetek eta gitarra batek inguratuta jardun zuen Morenok alboko argazkian jaso dugun iazko emanaldian.

16 urte dira udaberrian poesia errezitaldia antolatzen dutela

Basauri eta Bilboko poetek lagunduko dute Moreno, martxoaren 28an, Matienako Errotan, 12:00etan izango duen errezitaldian: Daniela Bartolome bilbotarra, Antonio Molina basauritarra, eta Vicente Moreno bera izango dira euren olerkiak irakurtzen.

Poeten ahots eta berbak gitarren akordeekin laguntzen, aurretik, Basauriko José Sánchezek jardungo du domekako Errotako emanaldian. Urtetik urtera gaitzagoa izaten dela errezitaldia antolatzea azpimarratu du Morenok, "alde guztietatik trabak ipintzen dituzte", kezatu da, baina

Hiru poetaren errezitaldia, martxoaren 28an, Abadiñoko Errota kultur etxean

Vicente Moreno abadiñarra, Daniela Bartolome bilbotarra eta Antonio Molina basauritarraren ahotik

urtero legez Abadiñoko Udaren partetik jasotako laguntza eskertu gara du aldi berean.

Poesia irakurtzeko ohiturarik izan ez arren, Morenok dionez, herritarrek ere eskertzen dute poeten ahotik euren olerkiak zuzenean jasotzea, eta lehenengo edizioan moduan jarraitzen omen dute Poesiaren Nazioarteko Eguneko errezitaldia entzuteragerturazten. Ordubete inguruko ikuskizuna izango da, eta olerkiak eta gitarrak doinuak aletuko dituzte Errota kultur etxeko oholatzen. ■ I.E.

Olerkiak bere doinuekin laguntzen Jose Sanchez gitarristak jardungo du

Martxoaren 28an, Errota kultur etxean da poesia errezitaldia



Kepa Aginako